



Getxo

bizi ezazu

Guraso estimagarriak:

Zuengana jotzen dut, batetik, ZORIONAK emateko, eta bestetik, zuen seme/alaba jaioberriaren garapenean garrantzitsuak iruditzen zaizkigun hainbat aholku iradokitzeko.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza izanda ere, galtzen joan da urteetan. Oraintsu arte babes ofizialik izan ez duenez, batik bat, familia barruko transmisioari esker iraun du. Belaunaldiz belaunaldi eta ahoz ahoko transmisio horrek gaur egun ere garrantzi itzela dauka. Izan ere, familia bidezko transmisioa dugu, zalantza barik, hizkuntza jasotzeko modurik natural, aberats eta eraginkorrena.

Egia da euskararen transmisioa familiaren esparrua gainditu eta gizartearen beste arlo batzuetara (eskola, telebista, aisialdia,...) zabaldu dela, eta beraz, haurra ez baita etxean bakarrik hezten. Baina horrek ez dio garrantzi apurrik kentzen, inolaz ere, familia bidezko transmisioari. Hizkuntza familian ikasi duten haurrak izan ohi dira euskaraz ondoen jakin eta modu naturalean erabiltzen duten helduak eta, gainera, familiaren

hizkuntza sentimenduak, poza edo tristura adierazteko hizkuntza da.


Hori dela eta, ume jaioberriaren euskalduntzerako egokiak izango diren aholku batzuk iradokitzen dizkizuet.

- Euskaraz ez badakizue, maila ona lortzeko sasoiz zabiltzate.
- Euskaldunak bazarete, edo bietako batek badaki, euskaraz dakienaren eginkizuna ezinbestekoa da.
- Nolanahi ere, zeuon seme edo/eta alaba euskarazko eruedetan matrikulatu. Gogoan izan umeak etorkizunean eskertuko dizuela orain euskaraz egitea, gaurko erabakia biharko aukera da eta.

Agur bero bat eta zorionak berriro ere.

IMANOL LANDA

Getxoko alkatea



emaiozu euskara